

Biblioteka Nazionala Euskal Herriarentzat

Agurtzane Juanena

1. [Sarrera: Kulturaren Euskal Planaren erabakia](#)
2. [Kontzeptua : funtzioak betetzerik bai biblioteka nazionalik gabe?](#)
3. [Biblioteka nazionalak eta kultur nortasuna](#)
4. [Biblioteka digitala versus biblioteka nazionala?](#)
5. [Biblioteka nazionalen etorkizuna](#)
6. [Gurean zer](#)
7. [Belgikako eredu bibliografikoak](#)
8. [Quèbec-eko biblioteka berria](#)

1. Sarrera: Kulturaren Euskal Planaren erabakia

Kultur politikaren arloan interesatua denak gogoan izango du 2003ko maiatzean egin zela, Gasteizen, Kulturaren Euskal Planaren Aurkezpen Jardunaldia.

Orduko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak, Imanol Agotek, azaldu zuenez, Planaren egitekoa honako helburuetan gauzatzen zen:

- Europarekin bateratzea
- Kultur eragileen sarea osatzea
- Euskal kulturaren sistemaren arkitektura eraikitzea. Adibideen artean, ondokoa aipatu zuen: Biblioteka Nazionala bai ala ez erabakitzea.

Kultura Ondarearen multzoaren barruan, azpimultzo bat zegokien biblioteki. Azken honetarako lan talde bat osatu zen, biblioteka esanguratsuenetako arduradunak eta elkarte profesionalak partaide zituena. Gure mintegiak ere, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiak, lan-taldean parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan zuen. Lerrook idazten ari naizen momentuan ez daukat ondorioak ezagutzera emango dituen agiri definitiboaren berri, baina berori iritsi bitartean, artikulu honetan gai horren inguruko puntu batzuk azaltzen saiatuko naiz.

Izan ere, 2003ko urrian egin ziren “*Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren I. Jardunaldiak*” deitutakoetan entzun zenez, “erakunde” bat sortzearen aldekoak ziren hainbat aditu, “erakunde” eta ez “biblioteka” bat (espresuki eskatu zuten terminoa ordezkatzeari).

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia, aldiz, maiz mintzatu da azken urteotan biblioteka nazionala sortzearen alde. Azkena, “*Kulturaren Euskal Plana eta Biblioteka Nazionala*” agiriarekin, 2003ko udaran zabaldua.¹

Zein arrazoitan oinarritu garen?

¹ Pentsan zabaldua. Besteak beste, Berria-n , 2003-07-17an.

Kontu tekniko konplexu samarra denez, ardatz nagusi bezala, euskal esparrukoa ez den aditu baten obra erabiliko dut motibo horiek agertzeko.

“Las bibliotecas nacionales : un estado de la cuestión” (Gijón, Trea, 2003) liburua ikerketa sakon bat da, munduko biblioteka nazionalen iragana eta orainaren azterketa sistematikoa egiten duena. Eskuliburu mardula, ia 600 orri hartzen baititu.

Laburpen orokor gisa, hainbat adituren ahotan entzuten den predikzio ezkorrei erantzunez, apustu tinko eta indartsua egiten du biblioteka nazionalen etorkizunaren alde. Goazen puntuz puntu komentatzera.

2. Kontzeptua : funtzioak betetzerik bai biblioteka nazionalik gabe?

Kontzeptuaren historia eta profesionalen ekarpen nagusiak ezagutu nahi dituenak lehen 116 orrialde ditu, haietan sakontzeko.

Ni Euskadiko Jardunaldietan entzundako batekin hasiko naiz: gurean biblioteka nazionalaren funtzioak lortzea izango litzateke helburua, “erakunde” baten bidez, inplizituki aditzera emanez biblioteka nazionala ez dela beharrezkoa.

Baina, literatura profesionala zerbaitean ados badago, horretantxe da, hain zuzen ere:

“Hablar de biblioteca nacional supone referirse a un concepto absolutamente plurisémico, variado, de modo que como en otras tantas cuestiones utilizamos una misma palabra para referirnos a realidades bastante diferentes”².

IFLA (*The International Federation of Library Associations and Institutions*) dugu biblioteka munduko erakunde gorena.³ Hasi pasa den mendean mugarri izan zen Vienako Kongresutik (1958), jarraitu IFLAren 1963ko konferentziarekin, segitu 80 eta 90 hamarkadetan egin ziren planteamenduekin eta bukatu IFLAren 2000ko agiriarekin, guzti horietan garbi geratzen da biblioteka nazionala bereizten dutena funtzioak direla, eta ez besterik.

IFLA-ren eskaerari erantzunez, J. Lor-ek eman zuen argitara 1997an bere *“Guidelines for legislation for national services”*. Bertan ordura arteko definizioak aztertu zituen eta hiru dimentsio bereizi biblioteka nazionalaren kontzeptuan:

² Juan José Fuentes: *“Las bibliotecas nacionales : un estado de la cuestión”*, Gijón : Trea, 2003., 15.or

³ IFLA (*The International Federation of Library Associations and Institutions*) is the leading international body representing the interests of library and information services and their users. It is the global voice of the library and information profession. (Web orria: <http://www.ifla.org/III/index.htm>. Kontsultaren data: 2004 urtarrila.)

- Ondarea (biblioteka zahar edo klasikoenek euren herrialdeetako altxor literarioei ematen diete garrantzia)
- Azpiegitura (koordinazioa, lidergoa eta beste bibliotekei emandako zerbitzuak azpimarratzen dira)
- Zerbitzu nazional hedatuak (batez ere garatu gabeko herrialdeetan, bertako azken erabiltzaileei emandako zerbitzuak dira nabarmenduenak)

IFLak bere 2000ko agirian ez du “esentziaz” edo “ezaugarri intrintsekoetaz” hitz egiten; aitzitik, egiten duena da, era guztiz pragmatikoan, biblioteka nazionalaren funtzioak eta egin beharrak finkatu. Hona hemen Biblioteka Nazionalen Atalaren aurkezpena:

“The National Libraries Section is concerned with the full range of functions within national libraries. The Section also works closely with the Conference of Directors of National Libraries (CDNL). National libraries have special responsibilities, often defined in law, within a nation's library and information system. These responsibilities vary from country to country but are likely to include: the collection via legal deposit of the national imprint (both print and electronic) and its cataloguing and preservation; the provision of central services (e.g., reference, bibliography, preservation, lending) to users both directly and through other library and information centres; the preservation and promotion of the national cultural heritage; acquisition of at least a representative collection of foreign publications; the promotion of national cultural policy; and leadership in national literacy campaigns. National libraries often serve as a national forum for international programmes and projects. They may have a close relationship with national governments, may be concerned with the development of national information policies, and may act as a conduit for the views of other sectors of the profession. Occasionally they also serve the information needs of the legislature directly.”⁴

Definizio horretan munduko biblioteka guztiak kabitzen dira (handi, ertain zein txikiak; berdin tradizio luzea dutenak eta jaioberriak); baina, ikusten denez, haien artean diferentzia handiak egon daitezke eta daude. Garbi dago biblioteka nazionalak ezin direla sartu sailkapen exhaustibo, erabateko eta itxietan⁵.

3. Biblioteka nazionalak eta kultur nortasuna

Baina izan badira, eta oso garrantzitsutzat hartu ohi dira, gainera. Non dago aparteko inportantzia horren zioa? Bada, beren mota zein euskarri guztietako dokumentuen bidez, froga fisiko bat osatzen dutela, ordezkatzen dituzten nazioek kultura unibertsalari egin dioten ekarpenaren froga ematen dutela.

“Este carácter de representante de la identidad de su país lo consigue mediante sus colecciones de materiales y, a partir de éstas, mediante la bibliografía nacional que, desde este

⁴ www.ifla.org/VII/s1/snl.htm. Kontsultaren data: 2004ko otsaila

⁵ Web orri honetan munduko biblioteka nazionalen estekak:
<http://exlibris.usal.es/bibesp/nacion/index.htm> (Kontsultaren data: 2004ko otsaila)

*punto de vista, ha llegado a ser definida como el registro del patrimonio cultural, político, social histórico y científico del país”.*⁶

Kultur nortasunaren ideia bikoitza da: alde batetik, bere herritarren aurrean gauzatzen da, kultur nazionala finkatu duten dokumentuak agerian jarritz (dokumentu hitza zentzurik zabalenean hartuta); eta, beste aldetik, kanpora begira, mundu osoari nazioa zer den ikusaraziz. Bietan azpimarratzen da eraikuntzaren garrantzia, kasu egin ondokoari:

“Pero en los países desarrollados esta función de identidad, de representación cultural, se produce no sólo desde los materiales almacenados, desde unas colecciones de obras muchas veces únicas, que son, sin duda, las mejores del país. A esto lo podríamos llamar “señas de identidad a través de los contenidos”; la cuestión va más allá, va a las “señas de identidad a través del contenedor”.

*Es decir, los documentos son importantes, pero no lo es menos el edificio, que así pasa a ser un nuevo y otro “documento”; paralelo al valor de las colecciones es el valor del edificio que las contiene, que pasa a ser así, a su vez, otra muestra de la identidad cultural de la nación.”*⁷

Artikulu honen irakurle bat baino gehiago ariko da honez gero pentsatzen aurrekoa errealitate orokorra ala autorearen espiritu nazional(lista)ren ondorio hutsa ote den. Baina aski da Espainia, Frantzia, edo Erresuma Batuko biblioteka nazionalen web orrietara joatea, aurreko planteamenduaren hedapena konfirmatzeko⁸.

1990ko hamarkadan estreinatu diren eraikuntza berriak egiteko motiboen artean, nortasun kulturalaren afirmazioa da, hain zuzen, motibo nagusienetako bat. Horren adibide dira *“La bibliothèque nationale de France”* Tolbiac-eko egoitza berria, edo *“The British Library”*koa, Saint Pancras-en.

Eraikuntzen oinarrian ere, herri edo hiritar guztiak kulturara iristeko eskubide demokratikoaren aldarrikapena dago; horrela, dokumentuen bildumek ematen duten nortasun kulturala indartu egiten da eraikuntza horietan izaten diren ekimen askotarikoen bidez ere (erakusketa, hitzaldi, eta abarren bidez ere).

Juan José Fuentesek jarraitzen du: *“Tan cierto es que la biblioteca nacional, y sus instalaciones, representan unas señas de identidad cultural como que, sensu contrario, cuando se quiere destruir la cultura de un país y sus símbolos más representativos, la biblioteca nacional es uno de los primeros objetivos de dicha destrucción.”*⁹

Sarajevo-ko bibliotekaren suntsipena aipatzen du autoreak ondoren. Irak-ekoaz ere gogoratuko da gutako bat baino gehiago. Zer esan, jaio ere jaiotzen utzi nahi ez duten gure balizko biblioteka nazionalari buruz?

⁶ Juan José Fuentes: “Las bibliotecas nacionales...”, O. cit., 229. or.

⁷ Juan José Fuentes: “Las bibliotecas nacionales...”, O. cit., 230. or.

⁸ Adibide moduan, British Library-ren plan estrategikoa: <http://www.bl.uk/about/plan.html> (Kontsultaren data: 2004 otsaila)

⁹ Juan José Fuentes: “Las bibliotecas nacionales...”, O. cit., 230. or.

Nortasun kulturalaren defentsaren garrantziaz ohartarazten dute liburuan aitaturako hainbat autorek. Michael Melot-ek azaltzen du nola teknologia berriei esker biblioteka nazionalen zenbait lan beste modu batera egiterik dagoenean, hala ere, herri aberats zein pobreetan, alderantziz gertatzen ari da, inoiz baino inportantzia handiagoa ematen ari zaie erakunde horiei. Izan ere, gaurko “mugarik gabeko” munduan, globalizazioaren munduan, biblioteka nazionalen bidez “berriro ere seguru eta desberdin sentitzeko modua” aurkitzen du zenbait jendek.

Eta nortasun kulturalaren defentsa beharrezko ikusten bada tradizio historiko luzea duten nazioetan, zer esanik ez nazio berrienen kasuan (garatuenak aipatuz: Kanada, EEBB, Australia, Zelanda Berria, eta abar). Dena den, defentsa argia izango bada, biblioteka nazionalak beste kulturen ekarpenak ere barne hartuko ditu, bizigarritzat hartuko ditu kanpotik datozenak ere.

Honen erakusgarri moduan, ikus, Kanadako Biblioteka Nazionalaren web orrian: *Au sujet de la Bibliothèque: Énoncé de mission et mandat de la Bibliothèque nationale du Canada, Ressources et services multiculturels, Ressources et services autochtones*.¹⁰

Aljeriako Biblioteka Nazionala, edo Estoniakoa, pasa den mendeko laurogeita hamarrek hamarkadan inauguratuak biak, adibide gehiagotzat har daitezke, ikusteko zein inportantea den biblioteka nazionala izatea euren independentzia arestian lortu duten nazioentzat, nortasun nazionalaren osaketan erakunde funtsezko baitira. (Gure artean aipamen berezia merezi duen Québec-ekoa, ez du Juan José Fuentesek ahotan hartzen, eta artikulua bukaerarako utzi dut).

Beraz, badirudi mende honen hasierako espainiar batentzat guztiz positiboa dela Aljeriak bere nortasun kulturala aldarrikatzea. Ez dakigu, ordea, zer litzatekeen duela berrogei urteko frantziar batentzat, ez baita hain urrun Aljeriaren erabateko frantsestasuna aldarrikatzen zen sasoa. Ez dakigu, baina erraz igar dezakegu. Liburuaren egilearen konpainian jarraituz, hara non konturatzen garen literatura bibliotekonomikoan ere nazionalismo on eta gaiztoen bereizketa agertzen dela. Baita gure orbana ere, terrorismoaren aipamena. Hona hemen aipua:

*“Por una parte, y frente a una globalización que algunos quieren feroz e inmisericorde contra cualquier vestigio de diferencia cultural, la biblioteca nacional, sin lugar a dudas, desempeña el papel de adelantada de la cultura (o culturas) de su país; por otra, y al mismo tiempo pero con no menos fuerza, la biblioteca nacional es un ejemplo de apertura al mundo todo, un abrazo de la sensatez de un cosmopolitismo enriquecedor y, por tanto, un rechazo de los nacionalismos cerriles (el rompecabezas balcanico, la violencia terrorista en el país vasco, etc.)”.*¹¹

Honela jarraitzen du orri batzuk aurrerago (hitzez hitz emango dut, garrantzitsua iruditzen baitzait):

“Hasta ahora nos hemos estado refiriendo a la biblioteca nacional como portadora y representante de las señas de identidad cultural de un país; no obstante, es preciso señalar algo

¹⁰ <http://www.nlc-bnc.ca/index-f.html> (Kontsultaren data: 2004ko urtarrila).

¹¹ Juan José Fuentes: “Las bibliotecas nacionales...”, O. cit., 239. or.

tan evidente como que esa identidad cultural no es algo completa y férreamente uniforme y homogéneo, como al parecer desearían algunos.

Más bien suele suceder todo lo contrario: que ese monolitismo de lo cultural, referido a un país concreto, no existe en modo alguno, presentándose la realidad como algo multiforme, heterogéneo y variado, de modo que en uno no pequeño número de casos, mejor que hablar de la cultura de un país – y España podría ser un ejemplo paradigmático de ello) sería hablar de sus “culturas”, de sus diversos modos de entender la vida, de las diferentes lenguas y tradiciones que, aun dentro de una historia común, cada país conlleva.

Resulta, como consecuencia práctica y evidente de cuanto venimos diciendo, que cada biblioteca nacional debe actuar como abanderada de esa enriquecedora diversidad cultural y tener entre sus objetivos irrenunciables, por tanto, el ocuparse de la recogida, organización, difusión y conservación de toda la documentación que se refiere a esas culturas diferentes a lo que podríamos llamar “cultura oficial” del país en cuestión”.¹²

Bada kontuan hartzeko beste faktore bat, beraz. Irakurleak erraz antzemango duen bezala, frantses eta espainolen artean erraz banatzen dira *kosmopolitismo* edo *unibertsalismo* ziurtagiriak, honi bai eta beste hari ez, komenentzien arabera. Biblioteketan ere edozein analisi egiteko kontuan hartu beharreko beste faktore bat da, beste edozein alorretan legez. Dena den, azala utzi eta muinari lotuz, garbi dago kultura aniztasunaren aldarrikapena erabat gureganatu behar dugun ezaugarria dela, gaur eta hemen batzuk gure identitatea porrokatzeko manipulatzeko badute ere. Zeren inoren manipulazioak ez baitu printzipioa bera auzitan jarri behar.

4. Biblioteca digitala versus biblioteca nazionala?

Argumentu hau ere maiz entzuten da, biblioteca nazionala auzitan jarri nahi denean: aurrerapen teknologikoek zentzurik gabe utzi omen dute biblioteca nazionala, erakunde zaharkitua da egun. Argumentu honen aurka beste batzuk ematen dira, gai berean oinarrituta. Izan ere: nola erdiesten du biblioteca nazionalak bere berea duen ondare bibliografikoaren hedapenaren funtzioa?

Balio handiko dokumentuak, dokumentu oso preziatuak direnez, ezin zaio erabiltzaileari utzi beroiek zuzenean ukitzen; beraz, jatorrizkoen kopiak egiten dira. Orain arte horretarako euskari erabiliena mikrofitxa edo mikrofilmea bazen ere, digitalizazioa ari da pixkanaka gailentzen. Digitalizazioak bi egiteko funtsezko ditu:

1. kontserbazioa: dokumentu digitalizatuak erabiliz, jatorrizkoen kontsulta ez da jadanik beharrezkoa
2. hedapena: dokumentuak sarean kontsultatu daitezke, eta, telekomunikazioei esker, hori edonondik egin daiteke

Bi ikuspuntuotatik, biblioteca nazionalak daukan lantresna onenetakoa, bere herriko eta kulturako nortasun zeinuak babesteko eta zabaltzeko orduan, digitalizazioa da. Baina lantresnak ez du, noski, “langilea” ordezkatzeko.

¹² Juan José Fuentes: “Las bibliotecas nacionales...”, O. cit., 242 or.

Informazio eta komunikazioaren teknologiek eszenatoki berri batean kokatu dituzte informazioaren erakunde zaharrenak, bibliotekak. Eszenatoki berri honetan, erronka berriak sortu dira; ez soilik biblioteka nazionalentzat, biblioteka guztientzat baizik.

Hastapenetan gertatu ohi den bezala, terminologia anbigua erabiltzen dugu birtualtasunaz ari garelarik. Definizio asko proposatu dira eta espezialistak ez dira oraindik ados jarri. Hona hemen batzuk:

- Biblioteka birtual edo elektronikoa: informazioa ez da euskarri materialean agertzen.
- Biblioteka digitala: telekomunikazioen erabilera dakar berarekin, informaziorako sarbidea urrutitik lortzen da, konexio kopuruak eta hartzailearen kokapen fisikoak horretarako eraginik ez dutela.
- Biblioteka hibridoa: biblioteka tradizionalaren eta digitalaren bateratzea lortzen du, bere helburua da askotariko formatuetan eta iturri anitzetatik jaso den informazioa erabiltzaileak deskubritu eta baliatzea.

Edozein kasutan, aditu guztiak bat datoz XXI mendeko biblioteka horमारिक gabeko biblioteka dela esatean: urruti dagoen erabiltzaileak ez dauka zertan bibliotekaraino joan behar, eta bertaratua den erabiltzailea, aldiz, han ez dagoen informazioaz ere baliatu daiteke.

Helburua informaziorako sarrera unibertsala eskaintzea da, Alexandriako Bibliotekaren ametsa. Batzuen ustez, biblioteka digitala Interneten dagoen informazio infiniturako “gateway” edo pasabidea da.

Den-dena ez da mauka, ordea. Dokumentu digitalen arazo korapilatsuak planteatzen dizkiote edozein bibliotekari. Literatura gehien sortzen ari diren gaiak dokumentu horien kontserbazioa eta Lege Gordailua dira.

Eta hemen guztiz harira dator biblioteka nazionalaren aipamena, izan ere, onartutzat ematen baita biblioteka nazionalak dagokiela material elektronikoa kudeatzeko ardura (jaso, teknikoki tratatu, gorde eta zabaldu, gainerako dokumentuekin egin ohi duten bezala).

Honek egiteko tekniko konplexua dakar berarekin; hain konplexua, non lan-talde bereziak sortzeko gomendioa eman den. Beste aldetik, bilduma elektronikoa erabat kontrolatzeko lan itzela egin behar denez, zenbaitetan ardura horri elkarlanean erantzungo zaiola ere onartzen da.

Laburbilduz, ez dago biblioteka digitala eta biblioteka nazionala errealitate kontrajarriztat hartzerik. Aldaketak datozela bistan da, baina aditu askoren ustez ezin da ordezkapenez hitz egin.

Bilduma digitalek paradigma berria kokatzen dute biblioteken ohiko zeregina. Eredu tradizionala (biblioteka nazionalak bere lurraldeko argitalpen guztiak biltegi erraldoi batean jasotzea) aldatzeko bidean dago, seguruenik. Baina, orain artean ikusi dugun bezala, biltzeaz haratago doa doa biblioteka nazionalen egitekoa.

5. Biblioteka nazionalen etorkizuna

Espezialista batzuk etorkizunari buruzko duda agertzen badute ere (biblioteka nazionalen hainbat zeregin beste biblioteka batzuk hartu dutelako beren gain) biblioteka nazionalak euren herrietako kulturaren ikur izaten jarraitzen dute. Arrakastaren gakoa ondoko gaietan jartzen da:

- Teknologien erabilpen egokia
- Lidergoa mantentzea
- Elkarlana burutzeko gaitasuna, maila nazional zein nazioartekoan

Biltegien harira, “eredu banatuen” aukera aipatzen da etorkizunari begira. Australiak ontzat ematen du “bilduma nazional partekatua”ren eredia. Ideia horren arabera, tokian tokiko materialak, sortuak izan diren lekuetan gera daitezke, biblioteka nazional batera eramana izan beharrik gabe. Bildumen zaintza elkarlanean burutuko litzateke.

Berriro P.J. Lor (Hegoafrikako biblioteka nazionalaren zuzendaria) ekarriko dut hona, harena baita artikulu garrantzitsu bat: *‘National libraries in the 21st. Century: dinosaur or dynamo?’*¹³

Berrikuntza teknologikoen aurrean kontuan hartu beharreko gai garrantzitsuen zerrenda ematen du:

1. lexislazioaren barruan, Lege Gordailuaren egokitzapena: ikusentzuneakoak, zinematografikoak eta material elektronikoak jasotzeko
2. ikuspegi berria kudeaketan
3. finantziarioa: defizitari nola aurre egin pentsatu behar da
4. puntako eraikuntzak egiten ari dira, eraikuntza horiek aldaketetara egokituak izan behar dute
5. informazioaren teknologia (argitalpen elektronikoak, digitalizazioa eta Internet)
6. digitalizazioaren eta interneten erabilerak jarduera eredu berri bat dakar berarekin: biblioteka nazionalak “kultur ondarearen emaile” dira eta, baita ere, hiritarren hezitzaile

¹³ Juan José Fuentes: “Las bibliotecas nacionales...”, O. cit., 574 or.

7. zeregin funtsezkoenak: bildumen kudeaketa, kontrol bibliografikoa eta preserbazioa (paperaren desadifikazio masiboa, mikrofilmazio eta digitalizazioarekin batera)
8. Vienako gomendioak betetzea: sozietate osoari, publiko zabalari irekitzea

Beraz, literatura profesionalean esaten denari erreparatuz, biblioteka nazionalen berpizteaz hitz egin daiteke. Zenbait tokitan, behintzat, haien garrantzia eta ikusgarritasuna areagotzen ari da.

Juan José Fuentesek bere liburua bukatzen du esanez, gaur egungo datuekin, biblioteka nazionaleri etorkizun seguru eta oparoa aurreikusten zaiela, baldin eta gai badira aldaketei aurre egin eta euren herrialdeen ikur nagusia izaten jarraitzeko: herrialdeko kultura, informazio, eta komunikazioaren ikur.

6. Gurean zer

Gure errealitatera etorri, aitortu beharra dago oso kaskarra izan dela azken bi hamarkadetako jardura. Honela labur genezake: politika orokorraren falta, ahaleginen sakabanaketa, prekaritatea. Honen kaltetu, ez dakit nagusi, baina bai nabarmena, euskara bera izan da, normalizazioari begira behar bezalako pausoak eman ez direlako.

Agintariak aldatu dira denbora asko ez dela, eta gauzak aldatzeko borondatea agertu dute. Biblioteka legea agindu dute 2004-rako, biblioteka nazionalaren azterketa ere bai. Badira, hala ere, kezka eragiten diguten zantzuak¹⁴:

- Hainbat urte horrelakorik gabe igaro ondoren, “Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren I. Jardunaldiak” antolatu ziren 2003ko urrian: euskararen presentzia hutsaren hurrengo izan zen (lau txostenetik bat bera ere ez, hamazazpi jakinarazpenetatik, bat bakarra). Geroxeago, “Euskal Ondare Bibliografikoari buruzko Mintegia” egin zuten, erdara hutsez. Argitaratzeko orduan, agian, itzultzaileei enkargatuko diete euskaratzea (*simulakro* deitzen zaio nire ustez horri).
- “Biblioteka Sistemaren Katalogo Kolektiboa” iragartzen da (bazen garaia!), biblioteka garrantzitsuenen katalogoak bilduko dituen, eta ez da inolako eskaerarik egiten euskararen estatusari dagokionez, biblioteka horietako asko erdara hutsez ari diren arren.
- “Udal Liburutegien Sareko katalogoa” planeatzen da, eta euskarazko katalogazioaren ardura udal liburutegiei ematen zaie, biblioteka ahulenen bizkar utzirik zerbitzu zentralen egitekoa izan beharko lukeena (biblioteka nazionalaren faltan, biblioteka nagusia eta Jaurkitzailea).

¹⁴ Juanena Alustiza, Agurtzane: Zertaz dira kexu bibliotekariak? Berria, 2004-01-04

- Euskal bibliografia nazionalik ez dugula eta, Jon Bilbaok egindako lan itzela erosi du Bizkaiko Foru Aldundiak¹⁵; harro erakutsi ere bai bere web orrian¹⁶. “Eusko Bibliographia”ri dagokion orria honela disenaitu da: Lurraren irudia eta armiarma baten hankak planeta inguratuz, armiarmaren gorputzean “Bizkaia” irakur daitekeelarik. Ez da komunikazioan aditua izan behar iradoki nahi dena asmatzeko. Baina, Bizkaiko Foru Aldundia da benetan, Euskal Herriko Bibliografia bere gain har dezakeena, berak obratu dezake, ala elkarlanean egin beharko luke, gainerako lurraldeetako erakundeekin batera, bakoitzak berea hartuz erakunde koordinatzaile baten gidaritzapean?

Ez dut kexan luzatu nahi eta, beste gabezia batzuen berri jakin nahi duenak, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiaren web orria dauka kontsultagai¹⁷. Besteren artean, Teresa Agirreazaldegiren, EHUko irakasle eta mintegikidearen artikulua aurkituko du irakurtzeko¹⁸. Artikulu horren bukaerako pasarte bat kopiauko dut, hitzez hitz: “*Ez inbestekoa da biblioteken arteko sare sendo bat (edo batzuk) eta beren gainetik bide estrategikoak, politikoak eta teknikoak markatuko dituen erakunde autonomo eta indartsu bat, nahikoa baliabide eta gizarte onarpena izango duena. Batzuek azken horri Biblioteka Nazionala deitzen diogu*”.

Euskal Autonomi Elkarteko kultur kudeatzaile eta biblioteketako profesional batzuk ariko dira momentu honetan, agian, gogoeta egiten (edo jadanik bukatua izango dute). Nire aldetik, erreferentzia eta inspirazio bila, Belgika eta Québec-era begiratzea aholkatuko nieke.

7. Belgikako eredu bibliografikoak

Hurbilenetik hasita, Belgikatik, honakoa irakur daiteke “*Bibliothèque royale de Belgique - Koninklijke Bibliotheek van België*” delakoaren dokumentu batean:

« *La Bibliothèque royale de Belgique est en même temps la bibliothèque nationale et une bibliothèque scientifique d'un pays multilingue. On y catalogue des documents provenant de nombreux pays et régions linguistiques diverses (...)*” 19

Laburki esanda, elebitasuna barik, hirueletasuna da Belgikako biblioteka nazionalaren helburua, alemana hirugarren hizkuntza ofizialtzat hartu izan denez gero. Bibliothèque Royale-ko lan taldeak, orain arte, frantsesari eta nederlanderari dagokiena landu du batez ere, alemanarekin hasi berriak baitira. (*Catalogues de la Bibliothèque royale*, <http://opac.kbr.be/fkbr1.htm>)

¹⁵ Pentsako albisteak Gara-n eta Deia-n (2003-10-28)

¹⁶ <http://bibliotecaforal.bizkaia.net:81/screens/mainmenu.html> (Kontsultaren data: 2004 otsaila)

¹⁷ <http://www.eibar.org/joana-albret>

¹⁸ Agirreazaldegi, Teresa: Biblioteka digitalerako bidea. Euskonews, 234 zk. (2003)

¹⁹ 1. Règles de catalogage. Généralités / Groupe de travail pour le catalogage de la Bibliothèque Royale de Belgique - Bibliothèque royale de Belgique, 2001

Zertan da desberdina gure biblioteken katalogo nagusiekin konparatuz? Elebitakoa izateaz gainera, elebitasuna ez dela azalean geratzen, katalogo benetan elebidunak sortu dituztela (hirueledun egiteko asmoarekin), non hizkuntza bakoitzaren estatusa bestearen parekoa den. Hori ezinezkoa litzateke horretara egokitutako sistema informatikorik gabe: VUBIS du izena (sistema informatikoen inguruko aitzakiak entzuten ditugu oraindik hemen).

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegikoak iaz jarri ginen harremanetan bertako teknikariekin argibideak eskatzeko. Harreman horren berri euskal bibliotekarien posta zerrendan eman genuen²⁰. Informazio zabalagoa nahi duenak mezu horietan aurkituko du.

Bestalde, "*Belgische Bibliografie = Bibliographie de Belgique*" argitalpen elektronikoa da (<http://www.kbr.be/bb/fr/Bbstr1.htm>) Interneten eta CD-ROM formatuan emana. Hilabetekaria da eta mota honetako dokumentuak jasotzen ditu bere baitan:

- Belgikan argitaratutakoak, gehi atzerrian ateratakoak, baldin eta azken hauetan helbide belgikarrik ageri bada
- Atzerrian argitaratutako autore belgikarren obrak
- Atzerrian argitaratutako Belgikari buruzko obrak

Hizkuntza aldetik, elebiduna da, nederlandera eta frantsesez argitaratua. Aipamen bibliografikoak Bibliothèque Royale-ren katalogoetara bideratzen dira.

Esan beharrik ez dago gurean ez dela honen parekorik, ezta proiektu mailan ere. Eta egon beharko luke, ez Belgikan egindakoa kopiatzeko, prezeski, nazioarteko gomendioei jarraitzeko baizik. Hona zer dioen IFLAk bibliografia nazionaleri buruzko dokumentuan:

*"La bibliographie nationale devrait recenser les documents dans toutes les langues et/ou écritures dans lesquelles des publications sont produites dans le pays ; et dans toute la mesure du possible, ces notices devraient être produites dans les langues et/ou écritures dans lesquelles ces publications ont paru à l'origine"*²¹.

Nazioarteko erreferentzia gehiago nahi izan ezker, hona hemen beste dokumentu bat: *Multicultural Communities : Guidelines for Library Services (2nd ed., rev. 1998)*. Horren inguruko aipamena, bibliotekari euskaldunen posta zerrendan²².

²⁰ <http://groups.yahoo.com/group/joana-albret/message/987>
<http://groups.yahoo.com/group/joana-albret/message/1272>

²¹ Recommandations finales de la Conférence internationale sur les services bibliographiques nationaux
<http://www.ifla.org/VI/3/icnbs/fin-f.htm> (Kontsultaren data: 2004 otsaila)

²² <http://groups.yahoo.com/group/joana-albret/message/972>

8. Québec-eko biblioteka berria

Belgika utzi eta Kanada-ra jauzi egin dezagun orain. Québec-era hobeto esanda. Han bazeukaten biblioteka nazional bat (1967an sortua) Québec-eko bibliografia hilerok argitaratzen zuena, eta atzera begirako bibliografia ere argitaratua zen. Hala ere, 1997an eraikuntza berri bat egin zuten, puntako teknologiak erabiliz dokumentuen kontserbazioa bermatzeko. Horrekin nahikoa ez, eta, zabalkunde lanari begira, erakunde berri bat sortzea erabaki zuten: “*La Grande Bibliothèque du Québec*” deitu zioten hasiera batean biblioteka berriari.

Ez zuten hutsetik sortu, noski. Leku arazoak zirela eta, batetik, Biblioteka Nazionalaren hedapenerako funtsak (kontserbaziorako bilduma beste leku batean zegoen), eta, bestetik, Montrealgo Biblioteka Nagusiaren funtsak leku berean kokatzeko ideiarekin hasi ziren. Québec eta Montrealgo agintarien bilerak, batzordeen txostenak, biblioteka definitzeko audientzia publikoak eta abarrak egin ondoren, 1998an *Grande Bibliothèque du Québec*-eko zuzendaria eta administrazio kontseilua ezarri ziren. 2001ean Québec-eko gobernuak bi erakundeak batzeko legea onartu zuen: erakunde berria “*Bibliothèque nationale du Québec*” bataiatu zuten.

Eraikuntza lanak urte berean hasi ziren (2001) eta 2004ko udazkenerako bukatuak egon behar dute. Bildumak bertara eramateko hilabete batzuk beharko direnez, 2005ko udaberrian irekitzea espero da.

Honela planteatzen du bere egitekoa:

“La mission de la Bibliothèque nationale du Québec (BNQ) est double. D'une part, elle rassemble et conserve en permanence, selon les normes les plus élevées en la matière, le patrimoine documentaire québécois publié, de même que toute documentation relative au Québec et publiée à l'extérieur du Québec. D'autre part, elle diffuse le patrimoine documentaire québécois et, dans un lieu physique et virtuel convivial, d'accès libre et gratuit pour tous les Québécois et les Québécoises, elle offre un accès à la culture et au savoir universel.

Forte de cette double mission, la BNQ poursuit également les objectifs suivants : valoriser la lecture, la recherche et l'enrichissement des connaissances, promouvoir l'édition québécoise, faciliter l'autoformation continue, favoriser l'intégration des nouveaux arrivants, renforcer la coopération et les échanges entre les bibliothèques, en agissant comme catalyseur auprès des institutions documentaires québécoises, et stimuler la participation québécoise au développement de la bibliothèque virtuelle.”²³

Helburu zinez ederrak, artikuluan zehar komentatzen aritu garen ildo berekoak. Norberak izango ditu horien artean bere kutunenak. Hauexek nabarmenduko nituzke nik (azpimarratuak nireak dira, beraz):

- *dans un lieu physique et virtuel convivial, d'accès libre et gratuit pour tous les Québécois et les Québécoises, elle offre un accès à la culture et au savoir universel.(...)*
- *favoriser l'intégration des nouveaux arrivants(...)*

²³ http://www.bnquebec.ca/fr/qui/qui_mission.htm (Kontsultaren data: 2004eko otsaila)

- *renforcer la coopération et les échanges entre les bibliothèques, en agissant comme catalyseur auprès des institutions documentaires québécoises (...)*

Benetako pena ematen du ikusteak nola, guk baino tradizio eta errealitate sendoagoa dutenek ez dute dudan jartzen azpiegitura hobeak egitearen komenientzia; eta hemen, berriz, betiko zekenkerian eta erdipurdikerian jarraitzen dugun; oraindaino egin ez dena, bibliotekarik gabe, “erakunde” batekin egingo delakoan...

Québec-etarren helburu bikainak ez dira hitz abstraktuetan agortzen. Planteatutako egitekoak burutzeko pauso zehatzak zerrendatzen dituzte, batzuk jadanik errealitate direnak, eta beste batzuk, berriz, etorkizun hurbilera begira daudenak. Hona hemen²⁴:

“Avec l'ouverture de la Grande Bibliothèque, début 2005, la BNQ offrira également :

- *la mise en place d'une bibliothèque publique à vocation nationale et montréalaise, comprenant quatre millions de documents, dont un million de livres;*
- *l'ensemble de la collection québécoise patrimoniale, cœur de la nouvelle bibliothèque;*
- *des ressources documentaires universelles de haute qualité, accessibles sous de multiples supports et moyens technologiques pour répondre aux besoins de chacun et respecter son droit à l'information, à l'éducation, à la culture, à la recherche et aux loisirs;*
- *des services adaptés aux personnes handicapées, aux personnes en difficulté de lecture et à d'autres clientèles particulières;*
- *une institution culturelle à vocation nationale.”*

Guztiaren laburpena epigrafe honetan dator: *“une institution culturelle à vocation nationale”*. Euskaraz jarrita: “Nazio mailako helburua daukan kultur instituzioa”. Ba al dugu antzekorik hemen? Inork uste al du bibliotekaren estatusik gabeko “erakundea” hurbilduko litzatekeela helburu hori betetzera? Honen azpian deskribatuaren antzekoa izango genukeela?:

“Recouvert de verre et de cuivre, le bâtiment proposera de multiples ambiances baignées de lumière naturelle. La disposition des lieux répondra aux besoins les plus divers, en offrant notamment des espaces calmes pour la lecture, des salles de groupes, des salles de formation,

²⁴ Xan Othaburu mintegikidearen itzulpena: Biblioteka Nagusiaren idekitzerekin, 2005. urte hasieran, BNQ-k ondokoak eskainiko ditu ere:

- Montrealgo eta nazio mailako helburua daukan herri bibliotekaren ezarketa, lau milioi dokumentuk osatuko dutena, horietan milioi bat liburu;
- Kebekeko ondare bilduma osoa, biblioteka berriaren bihotza;
- kalitate handiko dokumentazio baliabide unibertsalak, euskarri eta teknologia ahalpide anitzen bidez eskuragarriak, norberaren beharrei erantzuteko eta horren informaziorako, hezkuntzarako, kulturarako, ikerketarako eta astietarako eskubidearen errespetatzeko;
- elbarrituei, irakurtzeko nekeziak dauzkaten pertsoneri eta beste bezero bereziei zuzendu zerbitzu egokituak;
- nazio mailako helburua daukan kultur instituzioa.

un auditorium, une salle d'exposition et une vaste collection pour enfants située à l'entresol. Un aménagement paysager extérieur, côté rue Ontario, accueillera un jardin d'art”.

Amaitzeko, eraikuntzaren kokapen fisikoa²⁵ emango dut, inork bisita egiteko zortea izango duelakoan: Montréalgo auzo latinoan (Quartier latin) eraikitzen ari dira, lehen “Palais du Commerce” zenaren gainean. Ondoko kaleren bat bilatu planoan: “les rues Berri, Ontario, le boulevard de Maisonneuve et l'avenue Savoie” eta ez ahaztu posta-txartela guri ere igortzea.

Agurtzane Juanena Alustiza,

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kidea,

2004ko otsaila

²⁵ http://www.bnquebec.ca/fr/edifice/edif_construction.htm (Kontsultaren data: 2004ko otsaila)